

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

2862

EBAZPENA, 2026ko ekainaren 17koa, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, batera argitaratzen dira 2026ko lehiaketa arrunterako deialdiak, gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 21eko 7/1985 Legearen 92 bis artikulua aurreikusten du (Lurralde-finantzaketako sistemen baliabideei buruzko neurriak ezartzen dituen ekainaren 2ko Errege Lege Dekretuak aldatua) gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko sistemak lehiaketa eta, salbuespen gisa, izendapen askea izango direla.

Horrela, urtean bi lehiaketa daude: lehiaketa arrunta eta lehiaketa bateratua, azken hori ordezkoa izango da. Lehiaketa arruntari dagokionez, lanpostu hutsak dituzten toki-korporazioek onartzen dituzte lehiaketa arruntaren oinarriak eta deialdiak egiten dituzte, eta dagokion autonomia-erkidegoari bidaltzen dizkiote aldizkari ofizialetan aldi berean argitaratzeko.

2018ko martxoaren 19an, indarrean jarri zen gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua. Errege-dekretu horrek erregulazio berria ematen die merezimendu-lehiaketen merezimendu orokorre, eta puntuazio jakin batzuk aldatzen ditu, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 92 bis artikuluan jasotako merezimendu orokorren, autonomikoen eta espezifikoaren ehu-nekoen erregulazio berriaren babesean (Lurralde-finantzaketako sistemen baliabideei buruzko neurriak ezartzen dituen ekainaren 2ko Errege Lege Dekretuak aldatua). Era berean, eta aurreikuspen horiek garatzeko, otsailaren 16ko TFP/153/2021 Agindua onartu zen, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen merezimendu orokorren balorazioa arautzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegokoari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen bigarren xedapen gehigarriak adierazten duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan, legearen 92 bis artikuluan eta lotutakoetan jasotako gaikuntza nazionala duten toki administrazioko funtzionarioen araudi erregulatzailea Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriarekin, 149.1.18 artikulua erekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoarekin bat etorri aplikatuko da, kontuan harturik aipatutako 92.bis artikuluan aurreikusitako ahalmen guztiak autonomia-erkidegoko araudiak ezarritako eran hartuko direla, haien artean hauek daudela: hautatzeko ahalmena; enplegu publikoaren eskaintza onartzea bakoitzari dagokion lurralde eremuko plaza hutsak betetzeko; soilik bere lurraldeko plaza hutsak betetzeko hornitze-prozesuetarako deialdia egitea; funtzionarioak izendatzeko ahalmena horniketa-prozesu horietan; lehenengo destinoaren esleipena, eta administrazio-egoerak.

Zentzu horretan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen hamahirugarren xedapen iragankorrak, zeina funtzionario publikoei dagokienez ahalmenak eta eginkizunak egikaritzeari buruzkoa baita, hau xedatzen du: «Oinarritzko arautegi estatalak xedatzen du arautegi autonomikoak esleitu behar dizkiela ahalmen jakin batzuk toki-erakundeei, lurralde historikoetako

foru-instituzioei edo autonomia-erkidegoko instituzio komunei; lege hau indarrean sartzerakoan ahalmen horiek egikaritzen ari diren administrazio publikoek jarraitu egingo dute horiek egikaritzen, harik eta onesten den arte lege honen bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako Eusko Jaurlaritzaren dekretua»

Horrela, lurralde historikoetako foru-erakundeei dagokie gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioari funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko lehiaketetarako deialdia egiteko ahalmena, beren lurraldeetarako baino ez direnean. Deialdi horiek dagokien lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratzeaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratu ahal izango dira.

Hori guztiori kontuan hartuta, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako foru-erakundeei egin eta argitaratu dituzte 2026. urteko lehiaketa arrunterako deialdiak, lurralde historiko bakoitzeko toki-erakundeetan gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioari funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostu hutsak betetzeko.

Gauzak horrela, koordinatze aldera, batera argitaratu behar dira lurralde historikoek egindako 2026. urteko lehiaketa arruntari buruzko deialdiak; hori dela eta, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 11. artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Argitaratzea foru-aldundietako organo eskudunek egindako deialdiak, 2026. urteko lehiaketa arrunterako, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako bakoitzeko toki-erakundeetan gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioari funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostu hutsak betetzeko. Honako deialdi hauetan daude lehiaketak eraenduko dituzten oinarri komunak eta toki-erakundeei onartu dituzten berariazko oinarriak:

a) Arabako Lurralde Historikoa: Foru Gobernu Kontseiluaren 269/2026 Erabakia, maiatzaren 5koa. Horren bidez, lehiaketa arrunterako 2026ko deialdia onartzen da, estaturako gaikuntza duten toki administrazioari funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak betetzeko Araban (2026ko maiatzaren 15eko ALHAO, 55. zk).

b) Bizkaiko Lurralde Historikoa: Herri Administrazioari eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 3400/2026 Foru Agindua, maiatzaren 19koa, zeinaren bidez 2026. urteko lehiaketa arrunterako deialdia egiten baita Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeetan Estaturako gaikuntza duten Toki Administrazioari funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostu hutsak betetzeko (2026ko maiatzaren 22ko BAO, 95. zk.).

c) Gipuzkoako Lurralde Historikoa: Gobernantza Departamentuko foru diputatuaren ekainaren 2ko 1123/2026 Foru Agindua, gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioari funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak betetzeko 2026ko lehiaketa arrunta deitzekoa (2026ko ekainaren 5eko GAO, 104 zk).

Bigarrena.— Lehiaketetan parte hartzeko eskaera-orriak aurkezteko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.— Eskatzen diren betekizunak eta merezimenduak Ebazpen honen egunean bete beharko dira.

Laugarrena.— Deialdi hauetan baloratzeko merezimendu orokorrak izango dira Ebazpen honen egunean egiaztatuta eta inskribatuta daudenak gaikuntza nazionala duten funtzionarioen erregistroan, banakako zerrendaren arabera. Zerrenda hori interesdunen eskura dago Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz). Lehiakideek ezin izango dute beste egiaztagiri gehigarririk aurkeztu, ezta epaimahaiak bestelako balioespenik egin ere.

Merezimendu orokor horiek <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1061908> helbidean ere kontsultatu ahal izango dira.

Bosgarrena.— Foru-aldundiek egindako deialdietan daude jasota gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioeko funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak, lehiaketa arrunterako deialdi bidez betetzekoak. Lanpostu horiek dira Ebazpen honen eranskinean agertzen direnak.

Seigarrena.— Foru-aldundiek egindako deialdietan daude toki-erakundeek onartu dituzten bera-riazko oinarriak. Oinarri horietan daude adierazita lanpostuen ezaugarriak eta merezimendu bereziak.

Zazpigarrena.— Lehiaketetan parte hartzeko eskabidea eta destinoak esleitzeko lehentasun-hurrenkeraren eredia argitaratuta daude foru-aldundiek egindako deialdien eranskinetan.

Zortzigarrena.— Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egitea eskatzen duten lehiatzaileek, eskabideak aurkezteko epean, adierazi beharko diote Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari zer hizkuntza-eskakizun egiaztatu nahi duten.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honetan eta foru-aldundien deialdietan aurreikusi ez diren gaietan, oinarritzat hartuko dira gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioeko funtzionarioei buruzko araudia eta aplikatu beharreko gainerako lege- edo arau-xedapenak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 17a.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaria,
LORETO OSA OCÓN.

ERANSKINA

ARABA

Lanpostua/Toki erakundea	Hizkuntza eskakizuna	Derrigorrezkoa/Merezimendua
2. mailako Kontu-hartzailetza		
– Aguraingo Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
Diruzaintza		
– Aguraingo Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa

BIZKAIA

Lanpostua/Toki erakundea	Hizkuntza eskakizuna	Derrigorrezkoa/Merezimendua
2. mailako Idazkaritzak		
– Amorebieta-Etxanoko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Iurretako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Lekeitioko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Mungiako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Zallako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Zamudioko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
3. mailako Idazkaritzak		
– Artzentaleseko Udala	4. C2 simetrikoa	Merezimendua
– Mundakako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Arratiako Udalen Mankomunitatea	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
2. mailako Kontuhartzailetzak		
– Balasedako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Iurretako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Lekeitioko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Mungiako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Zallako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
Diruzaintzak		
– Abanto y Ciérvena-Abanto Zierbenako Udala	3. C1 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Bermeoko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Lekeitioko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Mungiako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Sondikako Udala	4. C2 simetrikoa	Merezimendua
– Sopolako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Zallako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa

GIPUZKOA

Lanpostua/Toki erakundea	Hizkuntza eskakizuna	Derrigorrezkoa/Merezimendua
1. mailako Idazkaritzak		
– Arrasateko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Errenteriako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Irungo Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
2. mailako Idazkaritzak		
– Azkoitiko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Beasaingo Udala (hutsik 2026-08-01etik aurrera)	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Bergarako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Debako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Lazkaoko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Ordiziako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Pasaiako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Tolosako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Urnietako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Villabonako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
3. mailako Idazkaritzak		
– Asteasuko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
1. mailako Kontuhartzaitzak		
– Arrasateko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Errenteriako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Irungo Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Zarauzko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
2. mailako Kontuhartzaitzak		
– Azkoitiko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Debako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Lazkaoko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Ordiziako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Villabonako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Zumaiako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
Diruzaintzak.		
– Andoaingo Udala	3. C1 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Arrasateko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Azkoitiko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Beasaingo Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Bergarako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Errenteriako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Lazkaoko Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Ordiziako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Pasaiako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Tolosako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Urnietako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa
– Zumaiako Udala	4. C2 simetrikoa	Derrigorrezkoa